

# John Searle's Philosophy of Language. Force, Meaning and Mind

SAVAS L. TSOHATZIDIS (ARG.)

Cambridge, New York: Cambridge University Press, 2007, x + 297 or.

John Searlek esparru asko eta askotarikoak landu ditu filosofiaren baitan eta, ondorioz, alor askotatik begiratu izan zaio haren lanari. Bilduma hone-tan, Searlek hizkuntzaren eta gogoaren filosofiaz esandakoak aztertzen dira, eta ildo horretakoak dira bilduman parte hartu duten autorerik gehienak ere. Hamaika atal eta hamabi autore ditu liburuak, Searleren lanaren alderdi hone-taz edo hartaz dihardutenak, begi zorrotzez askotan –kritikak ez dira falta—, baina, era berean, haren ekarpenak garatzeko eta hobetzeko proposamenez beteta datoz denak.

Zaila izango da, seguru asko, Searlek hizkuntzaren filosofian egindako lana argi eta erraz sailkatzea. Bilduman, bitan banatuta datoz lanak: «gogotik esanahira» («from mind to meaning») eta «esanahitik indarrera» («from me-aning to force»). Liburuaren bi zatien izenburu izateaz gain, Searlek hizkun-tzaz duen ikuspegiaren iragarle ere badira adierazpide horiek. Bilduma irekiz ageri zaigu Searleren beraren lan bat, sarrera gisara. Oro har, hizkuntzaren eta gogoaren filosofiari egindako ekarpen garrantzitsua da, dudarik gabe, ho-nakoa.

Hizkuntza fenomeno naturalizat aldarrikatzen du Searlek liburuaren sarrera-atalean. Hizkuntzaren filosofia egundoko lorpenak izan ditu pasa den mendean, filosofiaren beste inongo adarrek lortu ez dituen gisakoak seguru asko. Baina, oraindik, filosofoek ez dute hizkuntza fenomeno naturalizat har-tzen, eta Searlek susmo txarrak hartzen dizkio horri.

Beste aldarrikapen bat ere egiten du Searlek hemen: hizkuntzari filosofia-tik hurbiltzen gatazkiekionean konbentzio sozialek duten garrantzia azpimarra-tzen du irmoki. Bi horiek dira, labur esateko, lehenengo atal honen gai nagusi-ak.

Hizkuntza zer den argitu nahi du Searlek. Horretarako, hizkuntzaren eta hizkuntzaren aurretiko ezagutzaren arteko harremana aztertzen du. Bada an-tzekotasun nabaririk horien bien artean: biak dira intenzionalitate formak eta, beraz, aztergarriak dira eduki, asetze-baldintza, tipo edo modu eta asetze-noranzkoen terminoetan. Baina, parekotasun horiez harago, bi haien arteko desberdintasunak atzematean datza gakoa, hori da benetan garrantzitsua

dena. Bereziki, kontzientziak hizkuntzaren zein ezaugarri ez dituen zehaztea da gakoa, hizkuntza ezaugarritzen hasteko.

Hizkuntzaren bidez adierazitako proposizioek nor bere indar ilokuti-boaren araberrako asetze-baldintzak dituzte, gauza ezaguna dugu hori Searleren lanetan. Baina gogoan izandako proposizioek ere badituzte asetze-baldintzak. Are gehiago, lehenengoen asetze-baldintzak bat datoz bigarrenengoenekin; esan nahi baita, asmoen asetze-baldintzak aginduen asetze-baldintza bihurtzen dira, eta horrelaxe guztiekin. Aitzitik, ekintza linguistikoan, intenzionalitatea bitarikoa da: asetze-baldintzen gainean asetze-baldintzak ezartzen ditu hiztunak. Esate baterako, hiztun batek «Euria ari du» esaldia egiten duenean, ale hori sortzea da hitz horiek ahoskatzeko asmoaren asetze-baldintza. Baina, hitz horiek esanahiren batekin ahoskatu dituzenez, hiztunak bigarren asetze-baldintza bat ezarri dio bere aleari: euria ari duela, alegia.

Horrekin atzeman dezakegu, dagoeneko, Searlek «hiztunaren esanahi» deritzana. Baina komunikazio eraginkorreko sistema batek gailu konbenzional batzuk behar ditu hiztunaren esanahia aditzera emateko, eta gailu horiek eramango gaituzte esaldiaren esanahira. Azkenik, zenbait elementu sintaktiko sartuko zaizkigu hizketa-ekintzaren barne egiturari. Behin hiztunaren esanahia, esaldiaren esanahia eta egitura sintaktikoa ditugunean, erraz ikusiko dugu nola bereizten diren hizkuntza eta hizkuntzaren aurreko ezagutza: horrela garatuta, hizkuntzarik gabe ezinezko litzatekeen moduan pentsa daitezke pentsamenduak eta egin daitezke hizketa-ekintzak.

Baina bada beste pauso bat ere, Searlek azpimarratu nahi diguna: hizkuntzak nahitaezkoak ditu konpromiso sozialak. Adierazitako asmo-egoerez hara indi doaz atxikimendu horiek, eta, gainera, hizketa-ekintza mota bakoitzari bere-bereak zaizkio; alegia, ez litzateke horrelako edo halako hizketa-ekintza izango atxikimendu huraxe ez balu.

Ezaugarri horiek direla-eta errepresenta dezakegu errealitatea hizkuntzaren bidez. Ez hori bakarrik: errealitate bat egiazkotzat errepresentatze hutsarekin, errealitate horixe *sor* dezakegu —horrenbestekoak dira gure hizkuntzahalmenak—.

Horrekin amaitzen du Searlek bere sarrera-lana, eta bilduman zehar jorratuko diren gaiak aipatuak utzi dizkigu gutxi-asko. Hemendik aurrerakoetan bitan banatuta datozkigu lanak: gogotik esanahira, eta esanahitik indarrera.

## Gogotik esanahira

Sei lanek osatzen dute bildumaren lehenengo zati hau. Horietatik, lehenengo hirurek Searleren gogoaren teoriak dihardute.

François Recanatik kritika zorrotza egiten dio Searleren hurbilpenari. Hautemate-egoera kontzienteen analisisian Searlek aipaturiko auto-erreferentzialtasunaren baldintza oker erabilia izan da Recanatiren ustez, egoeraren eduki proposizionalari atxiki izan baitzaio, eta ez, behar zukeen moduan, horren modu psikologikoari.

Kent Bachek eta Robin Jeshionek Searleren internalismoari egiten diote erronka hurrengo bi lanetan. Horien ustez, Searleren hurbilpenak ezin dio ego-ki erantzun ikuspegi internalistari aurka egiteko proposatu izan den «partikular-tasunaren objekzioari». Honako honetan datza objekzio hori: ez da balekoa hautemate-esperientzien eduki intentzionala hautemalearen gogoak sorturiko elementu kontzeptualez, eta horiez bakarrik, osatzen dela emantzat jotzea. Ikuspegi erabat internalista hori ez da onargarria; izan ere, hautemate-esperien-tziek harremanetan jartzen dituzte hautemaleak eta munduko objektu partiku-larrak. Bachen eta Jeshionen arabera (nahiz eta ez duten biek berdin argudia-tzen horren alde), Searleren hurbilpenak ezin du objekzio hori gainditu.

Baina partikular-tasunaren objekziotik harago doa externalismotik Searleri zuzendutako kritika. Izen propioez duen teoriari ere susmo txarrez begiratzen dio externalismoak. Horretaz ari da Wayne A. Davis bildumaren lehenengo zatiko laugarren lanean, eta zera ondorioztatzen du: oro har, gaindi dezakeela Searleren hurbilpenak externalisten eraso, edo, gutxienez, Searleren hurbil-pena externalistena baino hobea dela gai honi dagokionez, nahiz eta haien zenbait kritika balekoak diren. Bidenabar, Searleren teoriari egin dakizkiokeen zenbait hobekuntza proposatzen ditu Davisek, horiek onartuta externalisten erronkari egokiago erantzungo liokeelakoan.

Horren ondotik Christopher Gaukerren lana datorkigu, «pentsamenduak hizkuntzaren gain duen lehentasun balizkoari» aurre egiteko helburuarekin. Bada, izan ere, oro har onartu ohi den ikuspegi bat, Searlek berak ere defendatzen duena, pensamendu kontzeptualak hizkuntzaren gain lehentasun onto-logikoa eta argitzailea duela dioena. Aitzitik, pensamendu kontzeptuala, fun-tsean, beti linguistikoa dela defendatzen du Gaukerrek. Horrekin ez du esan nahi hizkuntzatik independente den pensamendu-prozesurik ez denik, bai-zik eta horiek ez direla pensamendu-prozesu *kontzeptualak*. Aldarrikapen ho-rrekin, Searlek gogoaz eta hizkuntzaz duen teorian, oro har, onartutzat eta eztabaidaz kanpokotzat jotzen den alderdi bat ukitzen du Gaukerrek.

Gauza bera esan dezakegu azkeneko lanaren gaiaz ere. Wittgensteinen la-nez Kripkek eginiko interpretazioari Searlek eginiko kritikak jartzen ditu auzi-tan Martin Kuschek. Searlek ezin izan dituela defenditu edukiaren kontzepzio indibidualistak Kripkek Wittgensteinez eginiko interpretazio komunitarioak jarritako erronketatik, horixe aldarrikatzen du Kuschek.

Martin Kuschen lanarekin amaitzen da bildumaren lehenengo zatia.

## Esanahitik indarrera

Kepa Korta eta John Perryren «Nola esan gauzak hitzekin» («How to say things with words») lanarekin hasten da bigarren zatia. Eduki lokutiboaren hurbilpen berria eskaintzen digute, Perryren teoria erreflexibo-erreferentzian oinarrituta.

Esaldi batek adierazitako proposizioa eta esaldi horrek esandakoa sistematikoki elkarlotzen dituen ekuazio tradizionalari aurre egiten diote Kortak eta Perryk. Normalki onartutzat ematen den esaldiaren ikuspegi monoproposizionalista horren ordez, hiztun batek komunikatu nahi duena ulertzean esaldi horren eduki erreflexiboak kontuan harrarazten dizkigun sistema bat proposatzen digute autore horiek.

Irudi pluriproposizionalista horretan, eduki erreferentziala edo lokutiboa eta esaldiak esandakoa parekagarriak izango dira kasurik gehienetan. Baina Kortak eta Perryk erakusten digute badirela bi nozio horiek parekagarriak ez diren zenbait kasu: hiztuna ironiko den kasuetan, edo operatzaile logiko askoren kasuan, proposizioak ez dira esaten. Hemen aurkezten zaigun hurbilpenak lagun diezaguke desberdintasun horiek ulertzen, garrantzizko baitira, nahiz eta sarriegi muzin egin zaion horiei arreta jartzeari.

Eduki proposizionalaren eta ilokuzio-indarraren arteko bereizketa da Searleren esanahiaren azalpenaren zutabeetariko bat, Fregerengandik jaso neurri handian (erreferentzia, zentzua eta indarra bereizi zizkigun hark). Bereizketa horren alde eman daitezkeen bost arrazoi zerrendatuz hasten du bere lana Stephen J. Barkerrek. Aitzitik, arrazoi horien aurka argudiatzen du berak, eta egia-baldintzen semantika baztertzea proposatzen digu, indarraren eta zentzuaren arteko bereizketa (eta, beraz, baita eduki proposizionalaren ideia bera ere) alde batera utziz.

Esanahiaren kontzepzio alternatiboa garatzen du Barkerrek, proposizioetatik askea dena, eta zera aldarrikatzen du: egia-baldintzen semantikaren lorpenetatik harago eraman gaitzakeela berak proposaturiko semantikak (egia-eramaile nagusizat baiespenak, eta ez usteak, hartzen dituenak).

Nicholas Asherrek ere zalantzan jartzen du egia-baldintzen semantika. Gaindizterik ez duela izango uste duen erronka luzatzen dio semantika estandar horri: azalpen bateratua lortu beharko litzateke hizkuntza naturaleko perpaus-lokailuen esanahiarentzat, adierazpen-perpauzez bestelako perpausei aplikatzen zaizkienean. Asherren ustez, komeni da azalpen bateratu hori lortzea, eta lor daiteke: baina, horretarako, egia-baldintzen semantika baztertu behar dugu aurrena, eta, horren ordez, semantika dinamikoaren alde egin. Asherrek proposatzen digu ezaugarri horiek dituen sistema bat: semantika dinamikoa eta diskurtsoaren errepresentazio teoria konbinatzen dituen sistema

bat. Erakusten digu, baita ere, perpaus-lokailuen esanahiaren azalpen egokia lor daitekeela egitura berri horren baitan.

Bildumaren argitaratzailearena da hurrengo lana, Savas L. Tsohatzidisena. Searlek bai-ez galderei eman zien azalpena aztertzen du. Honako hau da Searleren tesia: bai-ez galderek horiei gramatikoki dagokien baiespenen eduki proposizional bera dute. Oro har onartutzat ematen den tesia da hori, Fregeren ideietan iturri duena. Aitzitik, horren aurka egiten du Tsohatzidisek, eta Searleren hurbilpen orokorrari ondorio kaltegarriak dakarzukiola erakusten du. Bestelako irtenbidea proposatzen du galdera horiek aztertzeko: bai-ez galderek ez dute inolako eduki proposizionalik, Tsohatzidisen azalpenen arabera.

Bereizketa zabalago baten baitan kokatzen da aldarrikapen hori: lehenengo mailako ilokuzio-ekintzak (zeintzuen indarrak proposizioei aplikatzen zaizkien) eta maila altuagokoak (zeintzuen indarrak lenengo mailako ekintza ilokutiboen balizko taldeei aplikatzen zaizkien) bereizten ditu autoreak.

Mitchell Greenen lanak ixten du bilduma. Searlek proposaturiko gogo-intentzionalitatearen eta intentzionalitate linguistikoaren arteko loturaren ideiaz dihardu Greenek, eta, bereziki, ekintza ilokutibo mota bakoitza gogo-egoera jakin baten adierazpena dela dioen aldarrikapenaz. Searleren ustez, hizketa-ekintza bat zintzoa izango da baldin eta bakarrik baldin hiztuna gogo-egoera jakin horretan baldin badago. Greenen ustez, ordea, Searleren azalpena ez da egokia, esaldi baten bidez gogo-egoera bat adieraztea esaldiaren ezauzgarri konbentzionaltzat baitauka azalpen horrek. Greenek beste proposamen bat garatzen du: esaldi baten bidez hiztunak gogo-egoera bat adieraztea lotua dago entzuleek egiten dituzten zenbait inferentziari, hiztuna talde-arauei atxiki zaiela emantzat jo ahal izateko.

John Searlek lan handia du egina hizkuntzaren filosofian, baina lan horren alderdi esanguratsu oro dago jasoa liburu hau osatzen duten hamabi lanetan. Searleren ideiak hobetzeko proposamen berritzaileak aurkitu ditugu bertan, baina baita kontuan hartu beharko lirakekeen kritika zorrotzak ere. Jorratutako gaiak asko eta askotarikoak izateak liburuaren irakurketa zaildu dezake, baina zailtasun hori erraz gainditzekoa da argitaratzaileak sinatzen duen sarrera-kapitulu taxuz egituratuaren laguntzarekin.

*Joana Garmendia*  
ILCLI